Urtarrilla - Enero
17
Egubaztena - Miercoles

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua... ...	6,00	irko.	Iru ile
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.587 zenbakija

Egunekua

¡Mutil azarrijak, orrixek!

Igazi dan astelen aŕatsaldian Bizkai-Auŕezki-Kutxea'n 81.000 lauŕleko-inguru ostu ebezan mutilakatik diñoguna da, mutil azaŕijak ixan zirala.

Antxiñako lapuŕak, ospetsubenak eta azaŕijenak ixaten zirala be, euren lapuŕeta ta enparauko gaiztakerijatxubak egiteko, gau ilunari itxaroten eutsen, eta gau ilunaren babesian al-ixaten ebentxuba egin.

Oraingo lapuŕ baŕijok, baña, euroen lapuŕeteak egiteko-ta, gau iluna baño egun erdiko eguzkijaren argi edeŕa gurago dabela dirudi, egin al leikezan lapuŕetarik aundijenak egunaren argiŕan egiŕen dabez-eta.

Egunaren argiŕan eta urijaren erdi-erdijan, eta batera ta bestera notiñik geyen ibili oi-diran orduban ganera.

Ausaŕkerizko lapuŕeta aŕigaŕi oneik egiteko baŕiz, notin bi naikua ixaten dira.

Notin bi, ta notiñok ezaungetuko dauzan idun-estalki ta buru-bekokijak estalduko dautsezan txapel bana.

Ezaunge-estalkijok eta eskubetan erakusteko ¡pim, peum! zarata zolija egiten daben suizkilu bana euki ezkero, oneik oraingo lapuŕ baŕijok, txindi-etxeko otsein gustijak beko txakijetan saŕtuta gero, kutxaetako txindi-gustijakaz jaubetuteko naikua dira, ba, ta gero, baŕiz, ezertxu be egin ixan ezpa'leben lez, atzetik-ara iñok jaŕaituge gentza osuan eurak deritxuen lekuratuteko be. Oneik mutilok, irakuŕle, ¡azaŕijak be azaŕijak dira gero!

Oneik jazokun gustijok, Bilbao'ko lekurik agirijenian, notiñik geyen batera ta bestera ibili oi-diran lekuban, iñortxuk be uaŕtuge jazoteko, eŕtzañak-eta, ¿nun egoten dirala, baña?

Ezer ostutekotan, asko ostu biaŕ dala esan oi-da, ta esakun au okeŕ daguanik eztirudi. Lapuŕeta aundijak egiten dabezan lapuŕak, ba, geyenetan, espetxera barik geratuten dira. Eta espetxeratuten ba-dira be, aldi gitxirako espetxeratuko dabez, ur azalian baño ur odijan obeto uger egiten dalako.

Txapel-okeŕen erdijan eskubak lotuta espetxera-bidian ikusten diran notiñik geyenak, soñeko zaŕakaz jantziŕa ta txiro antzekuak ixaten dira: ogi bat, txal bat edo oloren bat ostu ixan dabenak.

Aneika asko txindiŕan ostuten dabezan lapuŕ aundijak, espetxeratuten ba'dabez be, eskubak lotuta oñez bidiak-ziaŕ barik, belbiletan eruango dabez, ta zaldun aundijei jaokezan lotsa ta itzal gustijekaz ganera.

Espetxia, irakuŕle, txiruentzat bakaŕik egiñiko etxe iŕuna, otza ta iluna dala dirudi.

¿Bizkai-Auŕezki-Kutxea'ko lapuŕ ausaŕtsubei, oratuko ete dautse, oratu?

Itzaldi bat

Igazi dan igandian Sanchez Roman eskeŕtaŕak Madrid'en, itzaldi bat egin eban. Eta itzaldi aretan zozolistuen Eŕkala'gaz jaubetu gura bidegia, gaiztetsi egin eban.

Eŕijaren guramena, indaŕ eta matxiñada-bidez irabaziko dabela uste daun eŕiketa talderen bat ba'lego—iñuan Sanchez Roman'ek—, okeŕ be okeŕ eguala.

Eŕija egiŕada zuzenakaz irabazi biaŕ da—geŕu eban gero, bidezko izkilubokaz ezer ezin danian, baŕiz, aldizko zoritxaŕ-aldija ixilian jasateko.

Eskeŕtaŕ eletarijaren itzok, zozolistuentzako ixan ziran, matxiñada gura dabiltzan Largo Caballero ta lagunentzako.

Ondo izkiluzturiko Lateŕi altsu baten auŕka erdi-izkiluzturiko eŕiketa-talde batek ezertxu be egin ezin leikena, begi-auŕe argi-argi ageŕtuten dan egija da, ixan be.

Ori dala-ta Euzko-Alderdi Jeltzalia'k iñoz be eztau matxiñadarik gura ixan.

Bai, ostera, zuzutza-bidez jaokazan eskubidiakin jaubetuteko abeŕtzale gustijok ikuŕinpe baten batuta sendotutia, areyo altsuba ta indaŕtsubari auŕka egiteko danian, izkilurik indaŕtsubena gixa-izpide zuzena ixaten dalako.

Beraz guk, euzko-abeŕtzaliok, matxiñadarik eztogu eskatuko. Baña bai geure eskubidiak ukatu ta geu zapalduten yatoŕkuzan areyuei atzerantz eraŕeko biaŕekuak diran abeŕi-adoria ta kemena.

Geuk eztogu gaztelaŕai guda egiteko euzko-mugaetatik arantz juan biaŕik, geure-geuriak diran eskubidiak aldeztuteko, auŕka yatoŕkuzan aŕotzai atzerantz eragiteko, etxeko mugaetan euzko-adorez sututa itxaron baño.

Aŕigoŕiaga, Otxandiano, Gordexola, Mungia... Ona emen lau eredu.

Abeŕija azkatu ta aldeztuteko izkilurik aldintsubena irakuŕle, bene-benetako abeŕi-maŕasuna da.

Euzkadi be ezegaz azkatutekotan, benetako abeŕi-maŕasunagaz azkatuko da.

URIBIŔARTE'TAŔ IBON.

Euzkotar umien aldez

ASTOA TA IDIA

(GABON IPUNA)

(Jarraipena)

Noiz edo noiz gutxitu ziran etxean negaŕaren diadaŕak. Samiñak, gogo baŕuan saŕturik, itxi zituan gorputzeko ateak, bakaŕtasunean eta ixilean naigabea ausnaŕtzeko.

Gabon-eguna zan. Eriotzak ikeŕtutako etxean ixiltasuna nagusi zan aŕen txaidian alderantzira zan, beste etxeoñetan berdin. Dana zan abestia, dana ume zarata, dana pandero soñua ta Josu'ren jayotza ospatu beaŕa.

Umetxo ila zegoan gelatik ere, goiko etxeoñako umiak ateratzen zituzten zaratak eta soñuak entzuten ziran, eta ildatxoa zaitzen zeuden emakume onak itundu egiten ziran bestien pozaren agerpena entzutiaz.

Aldi baten bai irudian goyak-beya jo beaŕ zuala, ta Kelinetxo gaxuari bere ilobi edeŕian daŕ-daŕ eragiten zioten goiko umien zalapartak.

Iru emakume egon ziran lenengotan ildakotxoen ondoan, geroago bi juan eta bat bakaŕik gelditu zan, eta berau ere gaba galduta zegoalako edo loguretu zan eta poliki poliki luak aŕtu zuan.

Augaitik argi gustiak batera ta bestera aizeak putz-eginda bezela ibiltzen ez zituan ikusi, ez eta ere ez zuan entzun ormetan eta gelako goyan zebilen durundi gozo bigun bat; alegia uso askok egoakaz ormak igortziko bailitukie bezelakoa. ¡Atara zan ego soñua! Bai irudian ludiko uso danak. Kelinetxo ilda zegoan gelan saŕtu ta eŕten ebiltzala.

Gau aŕtan..., taŕ jaunaren etxean pesta aundia zan.

Etxeko umeak, umien lagunak eta senide umeak an ebiltzan jayotzaren inguruan. Gabon-abestiak abestutzen eta danboŕa ta panderua jotzen. Etxekoak esaten zioten zarata ta zalaparta gabe obeko jolastuko zirala baña alpeŕikan zan. Umeak beti ume. Zenbat eta zarata geyago ainbat eta pozago.

Jayotza aundia ta edeŕa zuten. Notin nagusiak bilatzeko moduko akatz asko zituan, baña umien begietarako ¡ain edeŕa zan! Ez zuten uste gizonak egiña izango zanik.

Donokian bai zirala luŕezko irudiak egiten ogia irabasten zuten gotzon batzuek eta ayetxek egindakoak zirala uste zuten euren Jayotza'ko irudiak.

¡Ai ura estalpe edeŕa! Kortxoskoa, eŕomataŕen jauregien antzeko saŕeraduna.

Izpilu batekin egindako ibaya beŕiz ¡bai ibaya! Ura bene-benetan aldapa bera bai zijuan bezelakotxia. Ibayen gañetik zubi edeŕ bat. Aŕiskoa ezanik iñoŕk ez zuan esango.

Zubi onen gañetik bai zijoan gizon eta emakumetan... danak estalperantz, Jaungoiko Umea ikustera. Belen'en erdi-erdian mendi aundi bat, Auñamendi'ko edozein tontoŕ bezin edeŕa, eta an emen, mendi tontoŕetan eta aldapa baŕenetan, ibai ondoan eta bide txioŕen erdian eta abaŕ. ¡Ayek etxe zuri politak!

Baña au ta gusti ere, aranean daude irudirik edeŕenak. Ibai-ertzean zapiak garbitzen ari ziran emakumeak. Antzaŕak saltzera dijoazen gizonak. Lapuŕ bat espetxera daramen mikelete bikoitza. Txistularia, eta berari begira-begira gelditu dan Bakalduna. Estalpetik Umea gurtuta etxerantz iŕintzi ta zantzoka dijoazen mutil gazteak eta abaŕ, eta abaŕ. Estalpien auŕean enparantza txiki bat dago, ta enparantzen erdi-erdian ituŕi bat.

Ituŕian neskatxa bi usulak betetzen eta ituŕitik eroritzen dan uretan aŕai goŕi politak. Bakian laga ezkero geldi-geldi egon oi diranak, baña eskuakaz ura erabili ezkero ara ta onera aŕai biziak bezelaxe ibiltzen diranak.

Mendaro'ko opil-saltzalia ere bai dago emparantzan eta "¡gaztaña eŕe bero-beruak!" diadaŕ egin ezin duan aŕen gaztaña saltzen dagoan andrea ere bai.

Irudi abek biak dira Jayotzak dituan irudirik politenak, umien iritzian beintzat, eta geyenean beori begira daude.

Itz batean esateko, eŕi gustiko Jayotzarik edeŕena jauregi artantxe dago eta bertan bildu dira ogei enbat etxe aundietako umetxoak.

(Daŕaike)

AŔITOKIETA.

Deunen bixitza

Andoni deuna, lekaipurua

Andoni Deuna, Komo, Egipto'n, 251'n urte inguruan jayo zan. Gurasoak on eta andiki artekoak izan ziran, eta sendi on bateko semeari zegokion asiera ona emoten ardura ipiñi eben. Amasaspi andia urte inguru zituala, gurasoak il yakozan eta bere aŕeba txiki bategaz, ondasun andien jabe zala gelditu zan. Oitura ebanez egun baten jaupa entzuten egoala, itz oneik entzun zituan: "Oso ona izan gura ba'dozu, zoaz, daukozuna saldu ta txiroei emoyezu, eta donokian ondasuntegia izango dozu". Goizparkiko itzok, Jauna'k berari zuzendutakotzat artu zituan, eta etxaratu zanean, bere aŕebeari yoakona emon eta enparaua txiroen aŕtean banandu eban. Luŕeko lokaŕietatik bere burua azke ikusi ebanean, donokitaŕ bizitza ludian egitea erabagi eban.

Gauza gustiak itxita ilobi baten ondoan bakartokia aurkitu eban lenengotan, eta gero Nilo ibai-ertzeko gastelu zaŕ baten. Buŕuka gogoŕak egin beaŕ zituala-ta bere ziñeste sendoari eutsiteko, enparau oneimenak ardurarik andienaz beragantzen alegindu zan. Gastetatik bakartegia bizi zan agure deun bat bere irakasletzat artu eban. Eroapen, otsantasun, eŕuki, apaltasun, lan, eta Idazti Deunak ikasten gustien aŕtean galendu zan.

Ziñausleen artu-emonetatik batez be aŕiotaŕakandik, iges egiten eban eurekan ia zertarako ez zala uŕeratu be, ez zala egin beaŕ esanaz.

Logaleari eutsin eziñik luŕean etxuten zan, beste oerik ez eban nai. Barau egiten izugaŕia zan. Ogi, gatza ta ura bakaŕik artzen zituan, eta berori be, eguzkian saŕera arte ez; saŕitan egun bian ezeŕ artu barik egon oi zan, eta gau osoak otoyean igaro.

Txeŕenak gaste onen auŕerapenak ikusi eziñik, atzera eragiteko iñon diran alegiñak egin zituan. Itxi zituan aukerak, ondasunak, gastetasuna, alde batetik, eta bestetik bakartasunaren galbideak, nekeak eta abaŕ begien auŕean ipiñi eutsozan. Baña Andoni'k ezetsiz garaitu zituan. Orduan etsayak, luŕeko atsegiñetara makuŕtzeko asmoz, lizunkerizko ziltzaldi ikaŕagaŕiak begien auŕean ipiñi eutsozan. Andoni'k otoi eta laztazunez zearo garaitu eban. Etsayak ez eben etsi. Ikuskizun bildurgaŕi bidez lenengo, eta gero Jaunak bere eroapena sendotzeko alan laga-ta, astiñaldi ta zigoŕez egun baten luŕean il da lez laga eban. Bere lagu batek uŕeko eleiza batera eroan eban, eta an bere senera biurtu zanean, baŕien-baŕi bakartegira eroateko eskatu eutson. Adore onegaz, etsaya garaitu eban eta geyago zartadarik emoteko lakemenik ez eban izan, baña oyu, gaŕazi ta ikuskizunez bilduŕtu guran jaŕaitu eban. Ba'zirudien, inguru gustiak, bera irunsten etoŕitako basapizti beterik egozala. Baña Andoni'k Jauna'gan itxaropen gustia ipiñita, ixekaz erantzuten autsen, eta Kurutzaren ezaugaŕia egiñaz beste barik txeŕen gustiak uxatzen zituan.

Onetan goitik beragana argi-izpi bat etoŕita pozez beterik ipinten ebela ikusirik, biozketa samuŕenaz Jauna'ri esan eutson: "Non zengozan, ene Josu maitea, nire ekaitz aldi onetan?" Eta abots batek erantzun eutson: "Ene seme Andoni, zeugaz nengoan, zelan yokatzen zenduan ikusten, zeure kemenaren ziñaldari, eta ain zintso iokatu dozulako, etsayak beti garaituko dozuzala, neure laguntzaz, diñotzut". Andoni Jauna'ri eskeŕak egiteko jaiki ta, uŕengo egunean, basamortu baŕurako bidea artu eban, Jauna'k an deun askoren aita ta eredutzarako autu eban eta. Ogetamabost urte zituan, eta mendi baten etxe zaŕ bat egoala oartuta, bere biztokitzat autu eban. Etsayak bakean itxiten ez eutson aŕen, antxe, ogei urte igaro zituan, gotzonen bizitza egiñaz. Bakaŕ ta ixilik bizi gura eban, baña bere alegiñak gora bera, egoan tokian bere aizkideak bilatzen eben, eta aurkitu be bai. Lenengotan ez zituan artu gura izan, baña aŕen ta aŕen lortu eben. Ogetamabost urte laztasun goŕi aŕtean igaro, aŕen, gaste ta gordiñik aurkitu eban, gogo argi, izakera leun eta aŕtu-emon atsegiñeko agertu yaken.

Bere poz gustia bakartasun eta otoyan zan aŕen, gizartean auŕean oso atsegiñez agertzen zan. Biotza eskuan ebala sutsu itz egin eutsen, luŕeko gauzen uskeri ta ziñesten bizitzako edeŕtasunatzaz, eta bertan bera gauza gustiak laga-ta beŕeun lagun gertau yakozan, beragaz antxe bizi-teko, bizitza deun bat egiñaz. Txosnatxoak egin eta bere inguruan biziten asi ziran eta baita Andoni deuna, bere bakarzaletasuna garaituta, ikasle baŕiei donoki bidea irakasten gogoz alegindu zan.

Bere entzutea Apirka, Italia ta Parantze'n eta ia lurbira gustian zabaldu zan, eta bere alatz eta iragarki emaitzen baŕi jakinda toki gustietatik ikasleak biltzen yakozan. Basamortuak etxez bete ziran eta urte gitxi baŕu milakak ziran bizitza deuna toki areitan egiten ebenak. Andoni deunak ardurarik andienaz zaintzen zituan gustiei onbide ta donoki bidea irakatsiaz. Otoi, laztasuna, ta apaltasuna batez be, irakasten zituan. Norberagan uste gitxi ta Jaungoikua'gan uste osoa, orixe txeŕena garaitzeko bidea esaten eban.

Baña Jauna'k jazarpen azpian egozan kistaŕak sendotzeko be aukeratu eban. Kistaŕ asko Alexandria'ra, zigoŕik gogoŕen aŕtean bizia kentzeko eroan zituela jakin ebanean, espetxeetan egozanak sendotzeko asmoz, Andoni deunak lekarotik urten, eta bere bizia galbide andian ipiñita, egiñalak egin zituan. Maitasun egintza edeŕ au amaitu ebanean, baŕiro toki bakaŕago baten eskutatzeko asmoa artu eban. Nere ikasleak igaŕi ebenean, iñon diranak asmau zituezan ori galerasteko. Eleiza'ren onerako baŕiro urten beaŕa izan eben. Alexandria'ra biuŕtu zan Gotzañen eskariz. aŕerarik onena egin ondoren, asko bide oneratu ta lekarora biuŕtu zan. Baŕiro bere lekaretxean, goi argiz igaŕi eban Paul Deuna, an bizi zala, ta ikertzeko. Bere ikertze autu aldi eriotzak, biotza jaunzaleago egin eban. Baŕien baŕi eun eta lau urtedun, lekarotik Alexandria'ra, joan beaŕ izan eban aŕiotaŕak garaitu eta Eleiza'ri bakea emoteko. Aŕiotaŕen auŕka Kostandin bakaldunari idatzi eutson, eta baita beste Gotzain bateri be.

Azkenez, Andoni deunak, laztasun eredu, lekaide-bizitzan aba, txeŕenaren bilduŕagaŕi ziñauslen zigor, eta Eleizaren aintza, izan zan gizan, guren au, ikasle gustiei onurik samuŕenak emon, eta poztasun andienagaz, eun eta bost urtedun bere azken arnasa emon eban. 356'ko urtaŕila 17'n. Deun au Europa gustian ospetsu da.

MITARGA"

Oldozpen Unetxo

ESKALEAK.—Edesti susmoak diranetik eskalien beŕi badegu. Gizaldi guzietan ezagutu dira eskaleak. Edonun arki genezazke.

Gauŕko berdiñezak kardabetua dauka ludia. Baña atzera begiratuaz berdiñez ori askoz nabarmenago dakusgu. Oraindik berdintasunera ez gera eldu. Oraindik batzun ogasunak gañezka, bestetzuk atez-ate eskean...: ¡lotsagaŕi benetan!

Eskea!, eskalea...! Amaika aldiz gezurtatzen dan izen eta izakera. Bere bizi guzia eskean igaro zuanak eriotz ostean dira mordoxka polita utzi zuala bein baño geigo entzun degu. Bestetzuk orde, eguneko janaria eskean arki beaŕean diranak, oyek bai eskale eŕukaŕi.

Eskale bat aŕenka datoŕkidanean eŕukiz txanpon bat eman oi diot. Baña eskuz-esku txanpona aldatzen dan unetxo ura bai mingaŕi neretzat; eskale gaxoa masalean jotzen detala iruditzen zait. Gizon-emakume, buru-soil, ile zuridun aiton amona askotan nere auŕean otsein antzo, nere auŕean zakuŕ goseti antzo ogi puskaren zai...

Lotsagaŕi ezezik benaz nardagaŕi gizarte zuzentasuna nai dutenentzat.

Etxez-etxe, atez-ate dabiltzan eskaleak ditun eŕia bai eŕi atzeratua. Zenbat eta eskale geigo ainbat atzeratuago dala esango nuke.

Euzkadi'n eskale euzkotaŕ gutxi. Euzkadi, gai oŕetzaz, eŕietan auŕeratunetakoa noski. Baña ori ez da aski. Gizarte legez, kistaŕ legez, Euzkadi'n eskalerik ez da ikusi beaŕ. Nola edo ala aŕenka dabiltzan eskale gaxoai bizibide garbi ta jatoŕagoa eman beaŕ zaye.

Berdintasun zoŕotza arlo saila noski, baña batzun ogasunak alpeŕikako ur antzean gañezka dauden aŕtean... ¡eskalerik ez!

Gizon emakume orok buru makurka gabe, auŕez-auŕe begiratzen garala bizi beaŕ gera. Elkaŕ begirapenez.

A-BI.

Cuba'ko gora - berak

Cuba'ko gora-berak amairik eztauke. Machado aldendu zanetik egun bateko bakerik ezta ixan. Matxinada-bazkunak lendakari autu eban Grau San Martin'ek ezin baretu al-ixan dauz lateŕi aretako biztanliak eta bere agintaltza uztu dau. Andik yatoŕkuzan izpaŕak nastauta diran-aŕear, al dogunik eta ziatzen atzalduko doguz. Areñegun opoŕketan jaŕi ziran tximista-ola gustijetakuak. Lateŕijak agindu eutsen bere otseiñai ola oŕein ardurea aŕtu egijela. baña Ipaŕ America'ko tximista-bazkunak Grau San Martin'en auŕez-auŕe jaŕi dira.

Gora-bera oŕeŕatik soŕtu diranak gaŕantzi andikuak dira. Roda eŕiko geltokijan suba emon eutsen ola nagosi bati. Batista buruzagijak ezin gauza onik egin al-ixan dau. Lateŕi osuaren egon-ezin au ikusi-ostian, Grau San Martin batu zan Columbia-zelayan eta Hervía, Almagro, Fernández Belasko eta Guiteras eŕkaltseñen auŕian bere jaŕlekuba uztu eban. Cuba'lendakari-ixatiari itxi dautso. Gudaltzako buruzagi geyenak, be, bertan ziran. Beriala Batista'k dei-egin eutsoen itxas-luŕa-aldeko gudarijai eta gertaurik daukoz ezer jazo eztedin.

La Habana urijan gexotoki gustijak arakatu dabez, batez-bere españaŕen toki oŕeitan izkilubak dagozalako. Grau San Martin'ek itxi ei-dau bere jaŕlekuba, ezkeŕtaŕakaz estalako konponduten. Auteskundiak egiteko diran ezkero, eurek zer nai egin gura leukie, baña lendakarijak olakorik ezeutsen lakētuko. Oŕen ordez Guiteras edo Mendieta ixango dira Cuba'ko buru.

¿Orain nor autuko dabe eŕkal[illegible]? Ezkeŕtaŕak Hevía'ren aldez dagoz, Cuba'ko benetako abeŕtzaliak, ostera, Mendieta'gaz. Hevía'gaz matxinada-zalien lagunak nagosi-ixango itxakez, baña Ipaŕ America'ko lateŕijak eleuke ontzat aŕtuko, Mendieta ostera jasekotzat daukoe.

Ipaŕ-America'n iru itxasontzi gertauta daukoez Cuba'n ezer jazoten bada aratu dadixan.

Eztabaida onetan gauza bakaŕa ikusten dogu; batetik Cuba'ko abeŕtzalien gudaketea ta bestetik Ipaŕ America'kuakaz batera dabiltzanena. Azkenengo oneik eurek abeŕija salduko leukie. Cuba'ko eztabaida gustijotan yankiŕaŕen zapokerija baño eztago. Cuba'ren jaube ixan gura dabe. Oŕegaŕik ugaŕte edeŕ oŕek eztau bakerik ixango iñoiz.

Lateŕi indaŕtsu bati atsegin yako ta aren eskupian jausi-aŕte eztago atsedenik. Euzko-abixendun bat abeŕtzalien-buru dala jakiŕian poztu gara. Geure odolekuak beti ixan dira lateŕi-azkatzaliak-eta.

L.

Egutegi ederra

"Argia"ko mutillak, mutil zintzuak dira gero. Zelako egutegija argitaldu dauskube. Amairugarren urte onetako "Argia'ren Egutegia" edonun erakusten emon daikegu. Euzkadi'n ez-eze beste laterri askotan, bere antzekorik ezta sortuten. Zorijonik anaikorrenak, langille arrullo orrei.

Idazti ederra iruditzen yaku, egutegi baten ordez. Bere guraso diranak ondo ikasijak dozuz, jantzi barrijak josten sayatu diranak. Berreunda zortzi orrijalde daukozan Egutegia ezta petrala, gorengua baño. Olakuak egin, egiten dira noxian bein, sarri ez, ostera.

Baña azalez ta tajuz ederra iduritzen ba-yaku, mamiz, muñez begikuago egin yaku. Olerkarijak, idazliak, ipuinlarijak, margolarijak, zenbatek bidaldu dauz bere lantxubak. Izpijurra bai'litzan, lanak zenbatuko doguz gaurkoz, urren guan zerbait geyako esango ba-dogu, bere. "Jaunartzea", "Argia Donea"tik artuba. "Antziña'ko Oitura onak" E.'tar Y. "Beti Euzkeraz. Euzkaldunak alde guzietan", Garbi. "Euzkotar Ospetsuak. La Costa'tar Jon". "Pasaya". "Jabiertxo'ren eriotza" Lizardi'tar Jabier.

"Euzkal-edesti-ziar", Magalanes'en ibilladia. "Abertzale bai, baño euskaldun "Irular". "Zozo bikaña", Birigarro. "Itxoiten dagonaren ankak", "Bertso gaxoak", Jauregi'tar Koldobika. "Loyola'tar Iñaki deuna", Zeleta. "Getaria". Euskotarrak eta Colon'en ibitaldiak". "Euzkaldun burrukalariak". Kirolzale. "Euzkotar ospetsuak. Elkano'tar Jon Sebasten". "Maitale Kutuna", "Lauaxeta". "Yainkoagan bat" Orixe. "Donostia'ko portua". "Bertsolaria". Eizmendi'tar Iñaki. "Euzkaldun ospetsuak. Lope de Agirre". "Maritxu" Endoya. "Umetxoentzat" Amonatxo. Euzkotar ospetsuak. Errenderi'tar Kepa". Urdaneta'tar Ander. "Artoa" X. "Eroriak" Lekuona'tar Imanol. "Loyola". "Elgoibar". "Ipuya. Zilargilea eta Perdinanda". Galeper. Ipuya. Sendagillea. Urruzuno. Ipuyak Asto plauterua. Urruzuno.

卐 卐 卐

Izpijurra onegaz "Egutegia"ren erdirarte baño ezkara eldu. Bijar jarraituko Orain arte jarri dogunaz ondo baño obeto ulertu daikegu zelako idazti txukuna egin dauskuben. Benetan gauza sakona. Amaikatxu bidar erabilli dogu eskubetan, so emetik, so andik. Txalo zintzuak bidalduten dautseguz bere egilliai.

Emazute bide - berritik

Arriola ta "Eusko"ri

Uztazue aspaldiko irizkideok, utzi abeŕtzaletasun aitzaroa; zuen azken idazki-zeaŕ antxe bai-zakustet.

Neroni ere, luzaŕoan gero, leiza zulo oriek baŕena ibilia natzaizute ta euzkera etoŕkizunari buruz zuen kezka beŕi ongi dakit.

Aretxen edeŕagatik ba, "euzkerea esitugabe" ikusi nai badezu "Aŕiola", "apainki zuk" beŕiz "Euzko", eldu gizartera argitarera jo emazute bide-beŕitik.

Beaŕik aitzaro atariratu intzan "Sayoa" arako itzak entzuteko unean: "Dadme una Euzkadi patriota, aunque absolutamente erdeldun y sin más ayuda que un diccionario y una gramática la transforma en Euskaleŕi."

Bat-batean keska ta bilduŕ guziak uxatu ta biotzak, kokal itxaropenez beterik bide-beŕiari ekin nion, Euzkadi "patriota" egiteari alegia.

Zuek leiza sakonean murgilduta nonbait, olakorik entzun, ez eta bertan jaŕaiki. Aitzaro azken kondartzat nire burua jotzen eta!

Zulo goibel orietatik zetoŕen zuen oyu latza entzutez bat, garai bateko ene irizkidiok argitaratzeko gogo bizia erne zitzaidan barnean. Gure irakasle bati Ernialde'ko leizetan aztarka zebiltzala gertatua oroitzean ordea, alako bilduŕa edo nabaitu ere bai.

Buŕuntzi, "estangitita" edo dalakoaren barnean eltzea arkitu. Ezgauz ura beregantu nayez alegiñean, kirtena puskatu ez diote ba.

Zuek oso-ororik bide-beŕiratu nai nik.

Somoŕo itsuak ete arkitu omen zituzten; ez berez itsuak luzaroan antxe ilunpean ikusmena galdu.

Zueri olakorik gerta ba'lekizute, argitarora oitu arte neroni izango natzaizute itsu-auŕeko.

Zuen begiak argitaro betea eraman dezatekenean, aŕituko zerate emengo auŕerapenaz. Ez dut esan nai gero, aitzarora biurtuko zeratenik; bide-beŕitik daramakigun abiadaz, liliuratuta geldituko zeratela baizik.

Ara EUZKADI ta "El Dia" artu ta "Carnet político" begira:

Una conferencia en Bermeo.—Del Batzoki Oñatiaŕa.—De Euzko-Gastedija de Mungia. La velada literario musical del día 6.—Laŕaskitu, junta general.—Otxandiano. Reunión de mendigoxales.—Beŕiatua Convocatoria.—Zornotza. Junta general de Euzko-Gastedija.

Ori gauŕko "Euzkadi„'k ta "El Día„'k: Notas de Abeŕi-Etxea de Tolosa.—Eibar Para Reyes Magos.—Rentería. E. A. B. por los poxpoliñak.

Ta egunero oŕelaxe. Euzkadi'ko eŕi jatoŕenetatik "convocatoria" "junta general" "velada literario-musical" eta abaŕen beŕiak datozkigu. Euzkadi patriota egiteari buruz izugaŕizko abiada ez al da ori!

Ara, noizpeinka, aitzarotik argitarora akulatu niñuten itzetan ipiñitako ametsak utseratu nayean edo, adizkide batek esana datorkit gogoŕa.

Alegia, irlandaŕak "politiuan" buru-belaŕi galeic'era ayen mintzoa, baztaŕtuxe euki nonbait eta arenak ia egin dula.

Irlanda'en alegiñak noski galeic'era piztеko. Etekin gutxi ordea.

Eraso nion Txekoslovakian gertatua azal tzen.

Bi edo iru zaaŕen ezpañetan besterik bizi etzala, iru ikasle abeŕtzalek jaso, ta gauŕ txekera dala ikastola nagusietan ere jaun eta jabe.

Ez dala olakorik jardetzi zidan. Ori baŕeatu ta idatzi duna, okeŕ dagola.

Txekera pizkunde oñaŕia bi edo iru agure ezpañetan ezezik eŕi ezpañetan jaso zutela ikasle abeŕtzale oriek.

Baña ez etsi, adizkideok. Arako ura ere, aitzaro-miñak joa bai-duzute. Len aitatutako xomoŕo itru orietarik izaki ta argitaro betea eraman ezin, oŕa.

Gu, bide burura iritxi arte auŕera, Euzkadi patriota egin arte, ordain saritzat Euzkadi euzkaleŕituta jasoko bai degu.

SAIOA.

Donostia'n.

Temas Vascos

Y aquí viene mi consecuencia final: Primero. Los vascos no han venido de Asia al territorio actual de Euzkadi, que detentan desde tiempo inmemorial, a través del Africa, ni tienen relación, ni su raza ni su idioma, con las razas camitas ni bereberes. Los modernos estudios prehistóricos apoyan este aserto.

Segundo. El estudio de la sintaxis del euzkera comparada con el de los sistemas de composición y sintaxis de los idiomas norteños de Europa nos demuestra una mayor aproximación a ellos que al latín, castellano, francés y demás idiomas del mediodía de Europa.

Procedemos, por tanto, de la parte Norte, y no del Sur.

卐 卐 卐

La sintaxis del euzkera. He aquí un asunto que se ha tenido descuidado, y sin embargo, representa la misma esencia de nuestro viejo idioma.

El nombre del sabio arcipreste de Tolosa, Orkaiztegi, fallecido hace pocos años, gran euzkerálogo y gran patriota, hay que enaltecerle como el primero que nos encareció dicho estudio presentando las bases del mismo y rectificando para siempre graves errores que deslucían las obras de nuestros antiguos escritores.

Estudiemos y divulguemos, sí, nuestro euzkera hasta hacerlo nuestro idioma oficial por calles, plazas y hogares, pero procuremos también estudiar y c[illegible] especial sintaxis, espíritu del idioma, reflejo el más característico de la manera de ser de la raza, su expresión más definida, y recordemos, en estos días de luchas y persecuciones, que, como dijo el ilustre Campión, no sujetan al espíritu las cadenas del conquistador, ni llega al alma la cuchilla del tirano.

López Mendizabal'tar Isaka.

卐 卐 卐

Errata.—En la parte de esta conferencia aparecida en el número 12 de enero, donde dice "ni procedemos del Asia, vía Europa, como sostenían Gabelentz y Unamuno...", debe leerse "ni procedemos del Asia, vía Africa, como sostenían..."

U[illegible]ETX[illegible]A

JAYOTZA.—"Paqueta" basetxeko Aŕieta'taŕ Gilelma ta Aŕizabala'taŕ Andone senaŕ emazteak seme bat izan dute ta ama-semeak onik arkitzen dira. Zorionak.

EZKONTZA.— "Euzkitza" basetxeko Zubizaŕeta'taŕ Josebe Peinado'taŕ Imanol'ekin ezkon-deyetan arkitzen da. Zorionak.

"EUZKADI" IKUSKIÑA.— Irudibiltegija (zinea) atetaraño beterik zegoala iru irudibilkizun edo puntzio ospatu ziran oŕtegunean. Bata 4'reta numientzako, bestia 6'terdiyetan da 9'tan bestia.

Makiñabat gauz edeŕ ikusi ondoren poz-pozik irten zan oztetza Gipuzko-Buru-Batzaŕa goralduaz.

AŔI GOTZON.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.º DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

MARTIKORENA
Begi'yetako gaixoen sendagillea
Garibay, 13 bis, 2.º - DONOSTIA

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10 — DONOSTIA

ARIETA BITXIZALEA

Bitxitegia-Zillartegia-Gabekaztegia
BITXIAK EGIN ETA BERRITZEN DITU
Urrutizkiña, 13.777